ESKOLA PUBLIKOA

STEE-EILAS

STEE-EILASen ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

32. zenbakia Garai Berria 2003ko Azaroa

3 Goieskola “Kalitate Legea”ren aurrean

6 UPV/EHU:
Ikasturte berria, arazo zaharrak

9 La Formación Profesional
en el País Vasco

13 Berriro ere oposizioekin bueltaka

15 Lengua e inmigración

20 Hezkuntzako laboralak sektore berria

21 La Escuela de Relaciones Laborales
de la UPV/EHU elabora un Plan
para la igualdad de mujeres y hombres

23 Palestinarekiko konpromezua areagotu

El fracaso de la OMC en Cancún
y la educación 25

Sexo, mentiras e identidades 27

Jazarpena desagertarazteko bidean 29

Alardea 31

Zure esku gaituzu

Nos tienes cerca

Araba:
Plaza Fuente de los Patos, 2 - 3. C
01001 Gasteiz % 945 14 11 04 • Faxa 945 14 43 02 • araba@stee-eilas.com

UPV-EHU Elurreta Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz % 945 01 33 97 • vczeilas@vc.ehu.es

Bizkaia:
Nikolas Alkorta 3, lonja 13
48010 Bilbo % 944 10 02 98 • Faxa 944 10 13 60 • bizkaia@stee-eilas.com

UPV-EHU Leioako Campusa
Gizarte Arloko Eraikina
48940 Leioa % 94 601 24 35 • Faxa 94 601 24 34 • lvzeilas@lg.ehu.es

Gipuzkoa:
Urbieta, 40-1.esk.
20006 Donostia % 943 46 60 00 • Faxa 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.com

Nafarroa:
Descalzos 72 behea
31001 Iruñea % eta Faxa 948 22 97 90 • nafarroa@stee-eilas.com

Eskola Publikoa dohainik banatzen da
Sinaturiko eritziekin Eskola Publikoa ez dator bat halabeharrez

Goieskola

“Kalitate Legea”ren aurrean

Con el comienzo del curso pasado inició su andadura GOIESKOLA, que nació de la unión de los centros públicos de Debagoiena (Gipuzkoa). GOIESKOLA representa a 2.417 familias, 2.974 estudiantes, 422 docentes y 62 no docentes. Es un proyecto que comparte planteamientos, recursos, servicios, experiencias y voluntades de los 14 centros a los que representa, garantizando, al mismo tiempo, su autonomía, con el fin de ofrecer una educación pública de calidad que contribuya al desarrollo social y ético-moral del alumnado.

Ante la Ley de Calidad, Goieskola ha llevado a cabo un proceso de reflexión y debate, con la diversidad como punto de partida y como objetivo a conseguir. En este artículo nos presentan las conclusiones de ese debate, en el que ha habido una amplia participación de la comunidad escolar de esta comarca.

Abiapuntua

GOIESKOLArentzat, aniztasuna, abiapuntua da eta, aldi berean, helburua. Abiapuntua, gure eskolak gizarte aldakor eta konplexu baten daudelako txertatuta. Eta helburua, hezkuntza sistemaren inertzia historikoen gainetik eskola horien baitan dauden pentsakera, izakera, mundua ulertzeko, harremantzeko, sentitzeko... era ezberdinak jaso eta ekarpen aberasgarri bezala bizi ahal izatea nahi dugulako.

Eta, erronka hau gureganatzen hasi garenean, non Estatuko Gobernuak Kalitate Legea onartu eta kaleratzen duen. GOIESKOLA-k gurea egin nahi dugun aniztasunaren helburuari lagunduko ote dio Kalitate Legeak?

Zalantzarik gabe, ezetz esaten dugu, aitzatik harriak jartzen dizkiola bidean.

Legearen argudioak

Eskola porrota

Legeak, eskola porrotaren erdigunean ikaslea jartzen du errudun bakar edo nagusitzat; ez du aztertzen hezkuntza sistemak ikasleari eskeintzen diona bidezkoa den ala ez: errekurtsoak, aukeratzen diren edukiak, metodologiak, antolatze erak... Ez du ikaslearen testuinguru sozioekonomikoa aintzakotzat hartzen, ondo dakigunean –gure esperientzia propioak hala diolako eta hainbat ikerketek baieztatzen dutelako– ikaslearen jatorria eskola emaitzen eragile eta baldintzatzaile nabarmenena dela. Kalitate Legeak jatorrizko desabantaila horiek konpentsatu beharrean bedeinkatu egiten ditu, ikasle horien arazo eskolarrak eta ondorengo bazterketa betiko finkatuz eta porrota sozialaren bidean jarriz. Gainera, bi mailako ikastetxeak finkatzen ditu, batzuk primerako ibilbideak eskainiko dituztenak, ikastetxe pribatuak, eta besteak baztertuentzako ibilbideak, ikastetxe publikoak.

Gure ustetan, berriz, eskolak, ikasle horientzako babesleku eta gune eraginkorra izan behar du, non ikaslea onartua eta estimatua izango den, eta ez ustezko gabezi batzuen arabera diskriminatua.

Eskola mailaren jaitsiera

Ministroak dio gaurko hezkuntza sistemak ezjakintasunera kondenatzen duela belaunaldi osoa. Bere ustetan, derrigorrezko etapan ikasleen maila eskolarrak behera egiten du nabarmen derrigortasuna 16 urterarte luzatuz. Ez omen du zentzurik ikasle guztiak ibilbide berdinean mantentzeak, askok ez diotelako denbora horri etekinik ateratzen. Ministroak bere erara interpretatzen ditu nazioarteko informeak (PISA 2000), ez baitu kontutan hartzen irakaskuntza zein baldintzetan burutzen den, zehazki Bigarren Hezkuntzan inbertitzen den dirua.

> Esta ley implanta salidas específicas para aquellos y aquellas estudiantes que presentan problemas en su aprendizaje, no habla sobre las medidas necesarias para motivar a este alumnado y desvirtua el concepto de evaluación continua convirtiéndolo en un simple seguimiento de los conocimientos adquiridos.

Bestalde, ezin esan gure gazteek aurreko belaunaldietakoek baino gutxiago dakitenik, beste ezagupen batzuek barneratzen dituzte, logikoa den bezala, gizarte bakoitzaren prestaketa premiak historikoki aldatzen baitira eta ezin ukatu gaur egungo ikasleek ezagupen askoz zabalagoa eta anitzagoa dutenik. Beraz, ez da maila jaitsi, ezta eskola porrota areagotu, gertatu dena da derrigortasunaren luzapenak agerian utzi dituela sistemaren hutsune, kontraesan eta desberdintasunak.

Eskola giroa eta elkarbizitza

Kalitate Legearen arabera, derrigortasunaren ondorio bat ikasle askoren motibazio falta eta diziplina eskasa izango litzateke eta, ondorioz, gela giroa okertzea. Arazo hauek gainditzeko, bi neurri jasotzen ditu legeak: ibilbide ezberdinen ezarpena eta Zuzendariaren boterea indartzea.

Ikasleen interesa berpizteko eta irakaskuntza ikasle bakoitzari egokitzeko argudioekin Legeak ibilbide espezifikoak ezartzen ditu. Guk dioguna da ez dutela balio ikasle bakoitzak berak behar duena bermatzeko; eskolarki hobeto dabiltzatenen mesederako egindako bideak direla, "arazoak" dituztenak alboratu egiten baitira, ez ditzaten besteen ahalmenak eta lorpenak oztopatu. Honetan ere, esperientziak demostratu du banaketa honek ez duela inoren emaitzetan eragin onuragarririk. Ikuspegi hori, etikoki onargaitza deritzogu, denok daukagulako besteengandik zer ikasi, kooperazioa eta elkarlana garatu beharreko garrantzizko giza baloreak dira, ezin direnak landu edukien arabera ikasleak sailkatuz eta banantuz. Baina, gainera, lorpen eskolarretik ikusita ere balio hauek indibidualismoa eta lehiakortasuna baino eraginkorragoak suertatzen dira ikasle guztien gaitasunak garatzeko. Ikasleei ibilbide aproposenak finkatzeko, maila igotzeko eta esfortzuaren kultura indartzeko –diote– kontrolak, azterketak, errepikapenak, Errebalida ezarriko zaizkie ikasleei. Baina, Legeak ez du ikasleak motibatzeko neurritaz hitz egiten, ezta irakaskuntza pertsonalizatu batetarako baldintzaz eta baliabideetaz. Azterketek, eduki kontzeptualak neurtuko dituzte, agian –prozedurazkoak eta jarrerazkoak badirudi desagertuko direla hezkuntza sistematik– baina ez dute hezkuntzaren kalitatea hobetuko; ikasleak sailkatzeko tresnak izango dira, baina ez dute bermatuko helburuen lorpena; ez dute ziurtatuko ikasleen motibazioa eta inplikazioa, baina ikasle askorentzat bere balio ezaren konfirmazioa izango dira eta ikasketak uztaraziko dien azken bultzada.

Ikastetxeetako elkarbizitzako arazoez hitz egiten du Kalitate Legeak, esan bezala, baina ez hausnarketa sakon bat egiteko asmoz,elkarbizitzako arazoak disziplina arazo soilak bihurtzen ditu, neurri zigortzaileekin eta Zuzendariaren boterea indartzen konpondu nahi ditu problemak; gure ustetan, horrelako neurriek bizitza demokratikoa murriztuko dute eta gatazkak areagotu.

Irakaslegoaren ondoeza

Irakasleen ondoeza, aitzakia bezala erabiltzen du Kalitate Legeak, ez baititu bere kausak aztertzen. Une zail baten tokatu zaigu irakasle izatea –behar bada ez da egongo une errazik–; gizarte eredu bat ari da hiltzen, baina ordezkoaren izpiak oraindik ez digute bidea argitzen; bide erdian gaude, gure funtzioa berdefinitu, gure protagonismoa berreskuratu, talde lana indartu, ikasleekiko harremanak sakondu, gizarte aldakor honi erantzuteko behar dugun formakuntza irudikatu... Badugu zereginik, bai, ondoeza konformismoaren aurkako sintoma izan dadila, baina inork ez dezala erabili zaharkitutako hezkuntza ereduei zilegitasuna emateko, ez gure izenean.

Kalitate legearen hezkuntza eredua

Aztertu dugunez, Legearen argudio-

Los argumentos para la implantación de esta ley –el fracaso escolar,la disminución del nivel académico, los problemas de convivencia, el malestar del profesorado–, son falsos y el discurso que se usa –calidad, igualdad de oportunidades, el esfuerzo personal,la necesidad de la evaluación– se queda en una mera declaración de intenciones.

Desde GOIESKOLA reivindicamos un sistema educativo integrador, comprensivo, plural,participativo y democrático.

ak –eskola porrota, maila eskolarraren jaitsiera, elkarbizitza, irakasleen ondoeza...– faltsuak dira. Erabiltzen duen diskurtsoa, berriz, hitz politez josita dago: kalitateaz, aukera berdintasunaz, parekotasunaz, hezkuntza sistemaren malgutasunaz, ebaluaketaren premiaz, esfortzu pertsonalaren garrantziaz... hitz egiten du, asmo eta balore txalogarriak, dudarik gabe. Baina bere mamian sartzean ikusi dugun bezala hitz hutsak dira, eta hezkuntza eredu itxi, uniformatzaile, elitista bat mozorratzeko erabiltzen ditu Legeak.

Beste alderdi batzueri erreparatuz, ere, Legeak ez dakar aurrera-pausorik:

- Haur Hezkuntzari ematen dion tratamenduaren arabera, badirudi Lehen Hezkuntzarako prestaketa-etapa bezala ikusten duela Legeak, helburu propiorik ez balu bezala. Etapa honen lehen zikloari (0-3) izaera asistentziala gehitzen zaio, ziklo hezitzaile bezala garrantzia kenduz.
- Gure ustez, pentsaera erlijiosoaren transmisioa eta hezkuntza, pentsaera hori konpartitzen duen komunitateari dagokio. Kalitate Legearen kasuan, erlijio katolikoaren alde egiten du apostua disimulurik gabe, Estatua, konfesionala balitz bezala. Ez du beste erlijiorik onartzen eskolan eta aginte katolikoaren eskutan uzten ditu erlijio katolikoaren ikasketak, eduki eta testu liburuen inongo kontrolik gabe.
- Legearen beste ezaugarri bat bere zentralismoa da, ez die Elkarte Autonomoko berezitasunei erreparatzen, are gehiago, ez dira kontsultatuak izan. Legearen egileek diote adostasun zabala dagoela bere onarpenaren inguruan; guk dakigunez eskola komunitatea ez da kontsultatua izan, eta entzun diren ahots gehienek Legearekiko desadostasun sakonak azaldu dituzte.

Goieskola-ren Konpromisoa

GOIESKOLA-k, beraz, Kalitate Legea atzerapausu bat dela kontsideratzen dugu, bere diskurtsoaren kontrako balioak defendatzen dituelako, hain juxtu: eskola demokrazioaren murrizketa, autoritarismoa, diskriminazioa, zentralismoa... Ondorioz, eskola integratzailea, konprentsiboa, anitza, eskola komunitatearen partaidetzaren aldekoa, eta demokratikoarekiko gure konpromisoa eta lana berresten ditugu gizartearen aurrean.

Pilar Etxaniz	(Antzuolako Herri Ikastetxea)
Guren Gonzalez	(Aretxabaletako “Kurtzebarri” Herri Ikastetxea)
Resu Abasolo	(Aretxabaletako Institutoa)
Arantza Mendarozketa	(Arrasateko Herri Ikastetxea)
Ramon Osinaga	(Arrasateko Institutoa)
Begoña Garmendia	(Bergarako “San Martin de Agirre” Herri Ikastetxea
Arantza Uribetxeberria	(Bergarako Institutoa)
Maite Aranzabal	(Elgetako herri Ikastetxea)
Jaione Garai	(Eskoriatzako Herri Ikastetxea)
Karmele Mendibe	(Oñatiko Herri Ikastetxea)
Malen Imaz	(Oñatiko Institutoa)
Junkal	(Aramaioko Herri Ikastetxea)
	(GOIESKOLAko Ikastetxeen Zuzendariak)

UPV/EHU:

Ikasturte berria, arazo zaharrak

Madrilgo Gobernuak egindako Unibertsitate-Legea prestatzen ari zenean mobilizazio ugari egin ziren horren kontra. Legearen aurkako jarrera nagusia zen eta Errektore gehienak (Manu Montero UPV/EHUkoa barne) ere Legearen kontra agertu ziren.

Baina Unibertsitate-Legea indarrean sartu bezain pronto, unibertsitate-agintariek ahaztu egin dute lege horren aurka zituzten argudio guztiak eta buru belarri ekin diote Legearen aplikazioari.

UPV/EHUko Talde Errektorala ez da atzean geratu horretan: pasa den udan ateratako irakasle-plaza asko jardunaldi partzialean eta Legeak agintzen zuen "asoziatu" erara atera zituen, hautagaiek Unibertsitatetik kanpo lan egiten zutela egiaztatu behar zutelarik. Era honetan, UPV/ EHUn lanean ziren bekadunak eta ordezkoak lehiaketatik kanpo geratu ziren.

Kontratua lortu zutenek, iraila artekoa zen eta orain luzatu behar dietela. Berriro Legeari ekin diote eta luzapena lortzeko UPV/EHUk eskatzen diete Estatu mailako Ebaluaketa-Ajentziari ebaluaketa-eskaera egina izatea. Urtebeteko epean aldeko txostena ez badu, kontratua bertan behera utziko du UPV/EHUk. Beraz, datorren ikasturtean, kontratua luzatuta duten zenbait irakasle kaleratuak izango dira. Beraien ordez sartuko direnek eskatuta izan beharko dute ebaluaketa-eskaera, baina aldeko txostena ez badute lortzen,

Aunque la posición inicial del equipo rector era contraria a esta ley, en la práctica la están aplicando a rajatabla.

Después de declarar por activa y por pasiva su apuesta por una ley de universidad propia, el Departamento de Educación simplemente regula aquellos aspectos en los cuales la LOU quedaba coja.

kaleratuak izango dira, eta abar. Hau al da irakaskuntza-kalitatea bermatzeko biderik? Kontuan hartu egoera honetan daudela 2001eko urtarriletik aurrera kontratataturiko irakasleak, gehienak titulazio berrietan sartu dira, beste asko ordezkapenak egiten ari dira. Gehienak elebidunak dira, baina Espainiako Ebaluaketa-Ajentziak ez du inolaz ere kontuan hartzen euskaraz egindako inolako jarduerarik (material didaktikoa, etab.).

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Euskal Unibertsitate-Sistemaren Lege-Proposamena

Madrilek inposaturiko legearen aurrean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak behin eta berriro azpimarratu du unibertsitate-lege "propioa" egingo zuela. Baina aurkeztutako lege-proposamena ikusita, "propioa" baino Madrilgo LOUk utzitako hutsuneak betetzera doan proposamena dela esan behar da. Eta normala da, kontuan hartzen badugu unibertsitateko langileak (irakasleak zein AZPkoak) transferitu gabe gaudela eta beraz Estatuko Legediaren menpe gaudela.

Beste aldetik, argi eta garbi esan behar dugu berandu gabiltzala. Aurrean aipatu dudanez, UPV/EHUk 2001eko urtarriletik aurrera aplikatzen ari da Madrilgo LOU eta Euskal Legea onartzen denerako ez dakit gauza handirik konpontzeko balio izango duenik.

Azter ditzagun Legeak dioena hiru atalen inguruan:

1. Irakasleak eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

Alde onen artean aipatu behar dugu irakasle kontratatuen karrera arautzen duela eta funtzionarioekiko parekoak izateko borondatea duela. Horrela nabarmentzen da ordainsarien kasuan eta zenbait adierazpenetan, baina Madrilgo LOUk Klaustro eta Juntetan ezartzen duen funtzionarioen %51a eta karguak eskuratzeko funtzionarioa izatearen betebeharraren aurrean ezer gutxi egin dezake EAEko Unibertsitate-Sistemaren Legeak.

Dena dela, Eusko Jaurlaritzak benetan irakasle kontratatuen irudiak bultzatu nahi baditu, neurri zehatzak hartu beharko ditu, hala nola, finanziazio berezia, irakasle kontratatuek kargu unipertsonalak betetzeko aukera izatea, funtzionariotik laborala izateko pasabidea egotea... Eta horietaz ez dago ezer Lege-proposamenean.

Hala ere, Legearen hutsunenik nabarmenena honetan datza: Legeak ez du ziurtatzen egungo irakasle kontratatuak irudi berrietan sartzeko bidea. Doktoreen kasuan, 4 urteko kontratua izango dute, baina ez da kontuan hartzen UPV/EHUn sinaturiko egonkortasun-akordioa. Eta irakasle ez-doktoreentzat (700 inguru) ez dago inolako ziurtasunik. Bi aukera ematen zaie: kalera edo denbora partzialean aritzea. Bata edo bestea ez dira irtenbideak. Azken finean, nork beteko du beraiek ematen duten dozentzia? Eta asko eta asko lerro elebidunetan ari dira.

AZPkoen kasuan, Legearen bi artikulu besterik ez dute merezi izan, nahiz eta 1000 baino langile gehiago izan. Plantila erdia behin behinekotasun egoeran egon arren, Lege-proposamenak ez du aurrikusten egonkortasuna lortzeko biderik. Jende guztiak onartzen du AZP/irakasle eta ikasle ratio txikienetarikoa dela. Eremu europarrean kokaturik egotea xedea aipatzen da behin eta berriro Legean zehar, baina horretarako ezinbestekoa da AZPren plantila gehitzea eta gaztetzeko neurriak planteatzea. Eta horiek dira beste hutsune batzuk.

2. Euskara

Legeak onartzen du Euskal Herriko berezko hizkuntza dela eta hizkuntza normalkuntzaren aldeko apostua egiten du: titulazio berriak martxan jartzerakoan euskara izango da lehentasunezko irizpidea, hizkuntza meritoak kontuan hartuko dira, euskalduna ez den irakasleak ezin izango du euskaraz arituko den plaza betetzea... Hala ere, emandako urratsak apalegiak dira. Ez da somatzen Unibertsitateko irakasleak Administrazio Publikoko gaineratiko funtzionarioek bezala Euskararen Normalkuntzarako Legearen aplikazio-eremuan sartzeko asmorik. Unibertsitateko dozentzia eta ikerkuntzak duten berezitasunak kontuan hartu beharko dira, eta baita ere Unibertsitatearen autonomia printzipioa, baina ezin dira irakasleak euskalduntzeko oztopo bihurtu. Are gehiago, irakasle kontratatuen arauketa Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dagoela kontuan hartuz, harritzekoa da irakasle kontratatu

Aunque la ley define el euskara como lengua oficial y hace una apuesta por la defensa de su normalización los pasos dados se nos antojan bastante lentos y escasos

berriei gutxienezko euskara-maila ez eskatzearena.

3. Nola ulertu Euskal Unibertsitate Sistema?

Lege-proposamenaren funtsezko oinarria, izenak berak adierazten duenez, euskal unibertsitate sistemaren definizioan datza.

Euskal Unibertsitate Sistemaren baitan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitateak eta kanpokoekin lankidetza-harremanak lagunduko dira, baina gehiagorik ez.

Eta horren aurrean bi galdera sortarazten zaizkit: Unibertsitate guztiak berdinak al dira? Euskal Unibertsitate Sistema Euskal Autonomia Erkidegoa soilik hartu behar du bere gain?

Lehenengo galderari dagokionez, argi dut Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate guztiek ez dutela paper berdina jokatzen. Ez dela gauza bera publikoa den UPV/ EHUk euskal gizarteari eskeintzen dion zerbitzu publikoa edota Arrasate edo Deustuko Unibertsitate pribatuek eskeintzen diotena. Legean unibertsitate-sistema bere osotasunean hartzen da eta unibertsitate guztiek diru-laguntza publikoak jasotzeko bidea irekitzen da. Baina, zein baldintzetan? Kontrolatuko al dira diru-laguntza horiek? UPV/EHUren kasuan bete behar dituen baldintzak Legeak arautzen ditu eta kontrola ezarrita dago Legean zehar, baina unibertsitate pribatuak kontrolatzeko aukera (eta borondatea) izango al du Eusko Jaurlaritzak?

Eta hau esaten dudanean, argi utzu nahi dut diru-laguntza publikoa dagoen heinean kontrol publikoa ezinbestekoa dela. Ez nator bat askotan entzuten diren unibertsitate-autonomiaren aldeko proklama hutsekin. Autonomia bai, finanziaketa egonkor eta nahikoa bai, baina kontrola ere bai, autonomia eta kontrol eza ez baitira gauza bera.

Bigarren galderari dagokionez, nire ustez, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak Euskal Autonomia Erkidegora mugatuak izan, euskararekin zenbait arlotan egiten den moduan, Euskal Unibertsitate-Sistemak (izenak adierazten duen moduan) Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzeko bidean urratsak eman daitezke. Esate baterako, Herri Katalanetan dagoen Joan Lluis Vives unibertsitate-sare moduko zerbait sortzeko asmoa behintzat adieraztea. Hau da, euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoz, Euskal Herriko unibertsitate-erakundeen arteko euskal sarea bultzatu nahia, irakaskuntza, ikerkuntza eta ekimen kulturalak koordinatzeko, bertako ikasle eta irakasleen mugikortasuna ahalbideratzeko...

Zer egin Euskal Unibertsitate-Sistemaren legearen aurrean?

Aurrekoa irakurri ondoren, argi dago Lege hau ez dela, nire ustez, gure Sindikatuak egingo lukeen Legea. Baina, beste aldetik, indarrean dagoen legea PPk egindako Unibertsitate-Lege Organikoa dela hartu behar dugu kontuan. Hau da, besterik ezean, Madrilgo Legea aplikatzen da. Eta hori da batzuek nahi dutena.

STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuok, aldiz, Gasteizko Parlamentuan aurkezturiko legea abiapuntutzat hartuta, aipaturiko hutsuneak eta beste batzuk betetzeko eta proposamena hobetzeko asmoz zenbait emandakin bideratu ditugu talde parlamentarioen bidez. Orain, emendakin horien bidez, legea hobe dezake Gasteizko Parlamentuak. Bere eskuetan dago.

Eta nahiz eta emendakin guztiak ez onartu, legea gurea izan ez arren, uste dut hobe izango dela Sasi Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea edukitzea, Madrilgo LOUaren menpekotasun handiagoa jasotzea baino.

Arantza Urkaregi

Sobre la definición del sistema universitario vasco se me ocurren dos cuestiones de vital importancia, ¿todas las universidades (pública, privada) son iguales? ¿El sistema debe definirse sólo sobre la base de la CAPV?

La Formación Profesional en el País Vasco



Con la puesta en marcha de la LOGSE (1990), se puede decir que la formación profesional ha venido realizando un gran esfuerzo por actualizarse a la realidad en la que vive. Se han adaptado los contenidos, las condiciones tecnológicas, formación… a lo que se demanda desde el mercado de trabajo, posibilitando al alumnado la adquisición de las capacidades necesarias que le permitan su inserción en el cada vez más competitivo mercado laboral.

Todo esto se ha visto especialmente reforzado en la CAPV, en donde la FP ha pasado a ser especialmente atractiva para la juventud vasca por sus niveles de inserción laboral, especialmente si se comparan con otro tipo de estudios.

Parece ser que además de ser atractivos para el alumnado, los estudios de FP están respondiendo a las necesidades empresariales, que previamente a la contratación, tienen la posibilidad de contactar con dicho alumnado mediante la realización de las prácticas obligatorias (Formación en Centros de Trabajo -FCT-) para la consecución del título correspondiente.

Finalmente, analizado el alumnado y la relación con la realidad empresarial, la FP en la CAPV, en cuanto a gestión y organización ha venido experimentando una mejora sustancial, sobre todo, desde la puesta en marcha en 1997 del Plan Vasco de Formación Profesional, si se tienen en cuenta el número de certificaciones ISO que se han venido obteniendo en los últimos años. Este sistema de aseguramiento de la calidad permite constatar que lo ofertado (horas, programaciones, módulos) se cumple y sigue los criterios y las orientaciones previamente marcados.

Por lo tanto, a primera vista, la FP en la CAPV presenta una cada vez mayor calidad, un mayor atractivo para los jóvenes vascos y una mejor adaptación a las necesidades del mercado de trabajo.

Descendamos… desde un centro de FP de la CAPV

Intentemos ir a lo que se esconde detrás de esa imagen. Para ello, iremos descendiendo en cada uno de los aspectos anteriormente comentados. Para comenzar, el tema de la calidad de los centros de FP resulta más complejo que las simples cifras de certificaciones ISO 9000 que se han ido obteniendo, por un doble motivo:

a. Cada vez parece haber más expertos que critican el hecho de que las certificaciones ISO 9000 no aseguran que se esté implementando un verdadero modelo de calidad. En este sentido, no hay que olvidar que la serie ISO 9000 original se gestó en la industria de defensa, con el objetivo básico de orden y control. Por ello, parece ser que en muchas empresas no se está ni siquiera con-

Orokorrean eta 1997. urtetik aurrera martxan ezarritako plangintzari esker Lanbide Heziketa erakargarriago bihurtu da oraingo ikasleentzat eta nahiko ondo egokitu zaio lan munduari, baina...

ISO 9000 agiriak ez du bermatzen hezkuntza eremuan kalitate eredu sinesgarri bat; ez dugu ahaztu behar agiri hau Defentsa industriatik inportaturiko eredua dela.

siguiendo un mínimo objetivo de aseguramiento de la calidad, sino la introducción de "una mayor burocracia y mayores restricciones, obligando a las organizaciones a hacer cosas que no conceden valor real alguno"[1].

b. No obstante lo anterior, en el sistema de FP vasco se está en los últimos años en una carrera por la consecución de certificaciones (un número muy superior al de centros de FP del resto del Estado español) ISO 9000. En esta carrera, es mucho el descontento y la incomprensión en torno a los siguientes elementos:

- ¿Cómo es posible aplicar modelos de calidad propios de defensa, y sobre todo, del sector industrial a un sector como el educativo?
- ¿Cómo es posible que los modelos se vayan copiando de centro en centro sin tener en cuenta las especificidades de cada uno?
- ¿Cómo se puede estar haciendo en tan poco tiempo? ¿No sería necesario un mayor tiempo para la adecuada formación de equipos de mejora, para conseguir una mayor participación de todo el personal, alumnado, padres y madres?
- ¿Cómo se están analizando los procesos existentes del sector educativo?
- ¿Cuál es la valoración en los centros más adelantados en la implementación de estos modelos de calidad? ¿Cómo lo ve el alumnado? ¿El profesorado? ¿Los padres y madres? ¿El personal no docente?

Preguntas que sería interesante plantearse, y que al no hacerse, van dejando una sensación de distancia, de lejanía, de modelos en los que nadie se involucra, salvo los que disponen de horas para ello. Entonces, ¿cómo se puede ir mejorando sin participación? Se crean proyectos para el alumnado, pero sin el alumnado. ¿A qué suena esto?

Continuamos. Como antes ya se ha comentado, el alumnado que concluye sus estudios de FP está consiguiendo (especialmente, en algunas especialidades) unas altas tasas de inserción laboral. Siendo esto cierto, hay también que considerar que la realidad actual del mercado de trabajo está sobre todo, basada en contrataciones temporales (mayoritariamente, contratos de prácticas y contratos de obra/servicio) con la incertidumbre que ello acarrea. La aparición de crisis económicas o la falta de adaptación a las cambiantes condiciones tecnológicas puede implicar que esta situación pueda revertir en muy poco tiempo.

Esta situación, que si bien afecta a todo el mercado laboral, es especialmente grave con nuestro alumnado, y los centros de FP debieran tenerla en cuenta:

a. Mediante la consideración además del conocimiento, de las capacidades del alumnado, en un enfoque más integral de desarrollo humano. Capacidad de análisis, crítica, de adaptación, etc.

b. Denuncia, presión… sobre el propio sector empresarial para que esta realidad vaya cambiando. Los centros de FP debieran ser un agente social más de cambio y no solamente de servicio a las necesidades empresariales.

Finalmente, y lo más importante, se ha dicho que el alumnado cada vez resulta más atraído por los estudios de FP. Pero, ¿cuál es la realidad del alumnado de estos centros de FP?

Hoy en día en la FP inicial, cabe distinguir los ciclos formativos de grado medio (con un alumnado entre 16 y 18 años) y de grado superior (con un alumnado entre 18 y 20 años). En los centros en los que exclusivamente se imparte FP no existe una función de orientación a la que lo/as alumno/as puedan acudir, pues se considera que con la elección de los estudios profesionales ya han determinado muchas de sus necesidades en ese terreno. En esta situación, llega el alumnado atraído por la elevada inserción laboral, pero con unos grandes niveles de desorientación vitales que hoy en día no se están atendiendo.

Por otro lado, la especialización profesional está siendo de tal magnitud que se puede decir que el profesorado de FP sí que dispone de los conocimientos más adecuados para la adaptación a las necesidades que plantea el mercado de trabajo, pero no de las herramientas pedagógicas y comunicativas necesarias para entender al alumnado que hoy en día va llegando al aula. No se da un verdadero proceso de negociación en el aula o en el taller, que lleve a formar no sólo un buen profesional en el mercado de trabajo, sino una persona autónoma con una concepción madura, crítica… de la realidad que le va a tocar vivir.

Sin ese proceso de orientación real, ni comunicación auténtica (con los conflictos inherentes a ella), se puede afirmar que la participación del alumnado en los centros de FP no es real, por mucho que el discurso teórico así lo recoja. No sienten el centro como suyo, sólo lo ven como un mero lugar de paso, al que ya llegaban con unas ideas, unas creencias, unas emociones…que en ningún momento entrarán a replantearse. Se cargan de conocimientos sin ver que todo eso es parte de un contexto más amplio, sobre el que también resulta conveniente reflexionar, y a veces, intentar cambiar. Eso exigiría tiempo, del que no se dispone, sobre todo, porque resulta muy costoso, dadas las actuales necesidades empresariales existentes. Se ha pasado a trabajar única y exclusivamente para la consecución de la inserción laboral. La formación

[1] HOYLE, D y THOMPSON. "Serie ISO 9000:2000:¿la tónica general…o todo un desafío?" en ISO 9000+ISO 14000 INFO 16/2001

de valores se ha olvidado en la actual FP, con lo que aquellos valores con los que se llega, basados fundamentalmente en estereotipos, permanecen, y en un gran número de casos, se refuerzan dadas las estructuras organizativas existentes.

En este sentido, sigue llamando la atención (especialmente, a gente ajena a este sector educativo) la segregación de sexos existente hoy en día en la FP vasca (con una FP masculina y exitosa, y otra FP femenina y de bajas tasas de inserción laboral). En este sentido, desde la Consejería de Educación se está intentando cambiar esto, a base, sobre todo, de mensajes en medios de comunicación, sin llegar al fondo de la cuestión, ¿qué es lo que lleva a esa elección profesional? Los estereotipos[2], en este caso, sexuales. Dichos estereotipos son los que perpetúan, en este caso, las desigualdades de género existentes en el mercado de trabajo[3], y hacen que la realidad siga siendo tan injusta. Se llega a los centros de FP con roles sexuales claramente diferenciados, y éstos se refuerzan en estos centros de FP. Entre ellos, están los centros mayoritariamente masculinos (centros de FP con especialidades como Mecánica, Electricidad… etc), que repiten las pautas de los antiguos centros masculinos[4], entre las que cabe destacar:

Nahiz eta Lanbide Heziketako ikasleen lanbideratzea oso altua izan, lan munduaren baldintzen gorabeherekin harreman zuzena du eta egoera hau erraz alda daiteke.

- Se observa una continua lucha por el poder subyacente en la mayoría de interacciones entre chicos, así como un proceso constante de toma de posiciones y búsqueda de status y prestigio, que se concreta en la última marca de teléfono móvil, ciclomotor o si tiene o no coche.
- Se observan casos claros de bullying[5], es decir, alumnos contra alumnos. Así, hay intimidación física, abusos verbales… que en numerosas ocasiones esconden una clara homofobia.
- Las relaciones observadas entre ellos suelen ser rígidas, inflexibles y competitivas. En general, se mantienen al margen unos de otros y sus conversaciones se refieren a asuntos impersonales. Si bien discuten de forma voluntaria y entusiasta los pros y contras de un tema futbolístico determinado, están abiertamente en contra de comentar su propia conducta, sus sentimientos o sus vidas. Es más, incluso cuando trabajan juntos en una tarea que exige colaboración, la conversación suele restringirse al

[2] Se sigue presentando a los hombres como duros, fuertes, agresivos, independientes, valientes, sexualmente activos, racionales, inteligentes… y a las mujeres como vulnerables, débiles, no agresivas, amables, cariñosas, pasivas, asustadizas, estúpidas, dependientes e inmaduras (ASKEW, S y ROSS,C. Los chicos no lloran. El sexismo en educación. Ed. Paidós, Barcelona, 1991).

[3] Mayores tasas de desempleo femeninas, menores niveles de remuneración en comparación con los hombres de igual o similar categoría profesional… etc.

[4] Para esto se parte de las observaciones realizadas y del estudio de ASKEW y ROSS (1991) que sigue teniendo una gran vigencia.

[5] AVILÉS MARTÍNEZ, J.M. "La intimidación y el maltrato en los centros escolares (bullying)" en LAN OSASUNA, Diciembre 2001.

Lanbide Heziketan lanegiten duten irakasleen hutsune nabarmena prestakuntza pedagogikoan datza eta ez du ematen honi konponbiderik eman nahi zaionik.

Nabaria da oraindik ere sektore honetan gertatzen den sexu-segregazioa, non gizonezkoen eredua ontzat ematen den.

menor diálogo posible o a temas externos y neutros. Parece como si no pueden o no quieren emplearla como forma de compartir experiencias.

En definitiva, este alumnado, que en numerosas ocasiones, viene marcado por el estigma del mal estudiante, se ve reforzado en el papel masculino de vencedor, al que trata de responder adecuadamente, preservando una fachada "masculina" de dureza, impasibilidad ante el dolor y ausencia de emotividad. Las emociones no existen. Expresarlas supone un síntoma de debilidad. Esta conclusión ya la traían aprendida, y dada la estructura y el actual funcionamiento de los centros de FP en la CAPV se ve cada vez más reforzado.

En este entorno, la propuesta de discusiones y métodos pedagógicos colaborativos o cooperativos resulta cada vez más complicada de poner en marcha. Es como si eso no fuera trabajo, de cara al resto del profesorado (que sí valora la última maquinaria o tecnología, pero no ese trabajo en valores) y al propio alumnado, que no ve un producto inmediato, como si fuera una pieza sacada del torno o la fresadora correspondiente.

En definitiva, sí que tenemos alumnos más atraídos por la FP en la medida en que eso les posibilita un rápido acceso al mercado laboral. Pero en el propio sistema de la FP, sobre todo, en el área típicamente masculina, nos encontramos con alumnos con altos niveles de frustración, bajos niveles de autoestima… que desembocan o en una gran frustración o en una gran agresividad. No quieren o no pueden hablar de ello. Es como si carecieran de emociones, lo que les dificulta su implicación en el centro (que tampoco

favorece en mucho su participación) y su relación con los demás. Sin usar un tono excesivamente catostrofista, ¿qué puede pasar con ellos en unas condiciones cambiantes o de crisis continuas?, ¿tienen suficiente capacidad de adaptación?

Iñaki Valencia

Berriro ere oposizioekin bueltaka

Mendebaldeko gizarte guztietan, estatu administrazio ezberdinetako funtzionarioen esku geratu dira betidanik zerbitzu publiko gehienak. Ikuspegi sozio-politiko batetik ikusita, argi dirudi garrantzi handiko zerbitzuak direla, esaterako, justizia, osasuna eta hezkuntza, ordenamendu juridiko eta sozial osoaren funtsezko oinarria den berdintasunaren printzipio bermatzen baitute, baita estatuak berak egin beharreko lan administratiboei loturikoak ere, estatu makinaren funtzionamendua hain zuzen bermatu behar dutenak. Horietan guztietan aritzen diren langileak administrazio maila guztietako funtzionarioak izaten dira gehienetan, nahiz eta beste langile mota batzuk ere egon: interinoak, ordezkoak, laboralak, aholkulariak,... Hauek guztiak, dena den, behin-behineko lan egoeratzat har daitezke, teorian behintzat, printzipio orokorra baita administrazio publikoko langileak funtzionarioak izan behar direla. Halere, azken urteotan, batez ere politika neoliberalen eraginez, joera bat ei dago hainbat zerbitzu publiko pribatizatzeko eta, horren ondorioz, funtzionarioak ez diren gero eta langile gehiago eta administrazio publikotik kanpoko gero eta enpresa gehiago aritzen dira arlo hauetan: arrazoi ekonomikoengatik gobernu asko hasi dira izatez beraienak diren funtzio eta betebehar batzuen ardura arlo pribatura zuzentzen –honek dakartzan ondorioak ere aztertzekoak izango lirateke–.

